

Arabako udalerrien izenak aldatzeko prozedura

Udalerrien izenak aldatzeko prozedura 271/1983 (EHAA, 1983ko abenduaren 21a) Dekretuan jasotzen da. Hona hemen, horren laburpena, pausoz-pauso:

1.- Lehendabizi, udalbatzarrak hasiera emango dio izena aldatzeko espedienteari, bertako kideen gehiengo soilez hartutako erabakiaren bidez.

2.- Erabakia Foru Aldundiari eta Euskaltzaindiari bidaliko zaie izen-aldaketari buruzko txostena eman dezaten.

Bi erakunde horiek erabakia eskuratu eta ondorengo hamar egunetan informazio zehatzagoa eskatu ahal izango diote udalari; edozein modutan, erakundeok hilabeteko epea izango dute txostena emateko, erabakia jasotzen duten egunetik hasita edo, argibideak eskatzen badituzte, horiek heltzen zaizkien egunetik kontatuta. Epe horretan txostenik emango ez balute, erabakia aldaketaren aldekotzat joko litzateke.

3.- Espedientea jendaurrean erakutsiko da hilabetez, Lurraldeko Aldizkari Ofizialean zein Euskal Herrikoan.

4.- Udalbatzarrak izen-aldaketa berretsiko du bertako kideen bi herenen aldeko botoekin.

5.- Espedientea Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailera igorriko da, Toki Administrazioako zuzendariak aldaketa onartu edo baztertzeko. Hilabeteko epean eman behar du erantzuna, bestela onartutzat joko da.

6.- Udalerrien izen-aldaketak ofizialak izango dira BOE Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean.